Xede berezietarako hizkuntz irakaskuntza: Laneko Euskara

Tere Barrenetxea (Elhuyar — Laneko Euskara Saila)

Hizkuntzen irakaskuntzaren teoria eta praktika garaian garaiko teoria linguistiko eta hizkuntzaren eskurapenari buruzko teoriei loturik eta hauen zordun ageri zaizkigu. Azken hamarkada hauetan planteamendu komunikatiboak hartu du gaina eta honen itzalak hizkuntz irakaskuntzaren alderdi desberdinak ikutu ditu:

- Ikaselburuen zehaztapena. Planteamendu komunikatiboaren eraginez, ikaselburuetan ez daiteke hizkuntz gaitasuna bakarrik kontutan hartu; komunikazio-gaitasuna bere osotasunean hartu behar da kontutan. Helburua ez da esaldi zuzenak produzitzen eta interpretatzen ikastea; erabiltzen ikastea baizik. Honi loturik, ikaselburuen izaera ez-uniformea ere jarri da mahai gainean, argudiatuz ikasle guztiek ez dutela hizkuntza helburu beretarako erabiltzen eta planteamendu komunikatibo baten oinarrian beharren analisi eta zehazpena legokeela.

- Hizkuntzaren eskurapena gaitasun komunikatiboaren eskurapenarekin identifikatuko dugu, beraz, orain. Eskurapen hori zein bidetatik gauzatzen den argi ez badakigu ere, «komunikatuz ikasten da komunikatzen» baieztapenak onarpen zabala irabazi du. Baieztapen honek didaktikan izango du eragina.

Orain badakigu ezagutza eta erabilera ez direla nahitaez katea bereko ondoz ondoko bi pauso. Hizkuntz unitateak maneiatzea eta komunikatzen jakitea ere ez dira gauza bera. Bigarrenerako ez da nahikoa kode gramatikalaren ezagutza hutsa; erabilera soziokulturalerako kodearena, hiztunen motibazioa, solaskideen jarrerak eta komunikazioa gertatzen deneko baldintza orokorrak ere ezagutu behar dira, kalitatezko komunikazioa lortu nahi bada.

Komunikazioak gertatzen direneko guneak bi sail handitan sailka ditzakegu. Horretarako, ondoko hauek hartzen ditugu komunikaziogunetzat: komunikazio-ekintza konkretuak gauzatzen direneko giza harremanak, edukin-multzoak eta leku fisikoek osatzen duten multzoa. Aipatutako bi sailak ondorengo hauek dira:

- komunikaziogune informalak
- komunikaziogune formalak

Gure artikulu honen xedea bigarren talde horretako (hau da, komunikaziogune formaletako eta, zehatzago, lan-arloko) komunikazio-beharrak aztertzea da eta Elhuyar taldeak arlo horretan egin dituen ikastaroen berri ematea.

EUSKARAREN EGOERATIK ABIATUZ

Euskara bezalako hizkuntza minorizatuek jasaten duten gaitza ez datorkie hiztun-kopuruaren murriztapenetik bakarrik. Hiztunak galtzen dituen neurrian, herriak eta lurralde osoak galtzen ditu, eta euskal hiztun izaten jarraitzen dutenek erabilera-espazioak galtzen dituzte. Garai batean euskaraz bakarrik bizitzea posible bazen ere, gaur egun erabilera-eremu askotan ez da euskararik erabiltzen. Horixe gertatzen zaigu administrazioarekin topo egiten dugunean, finantz entitateren batera zuzentzen garenean, sektore pribatuarekin edozein transakzio egiten dugunean edota gizarteko beste zenbait zerbitzu rabiltzen ditugunean. Hiztunak ez du euskara aukeratuko eta leihatilaz bestaldeko langilea ere erosoago arituko da bere lanean ohizkoena zaion hizkuntzan, hau da, gaztelanian. Oso lanbide gutxitan aurkituko dugu gaur egun bere bizitza profesionala euskaraz garatu duen langilerik, euskal hizkuntzaren inguruko langilea ez bada behintzat.

Arazoa, denok dakigun bezala, oso konplexua da. Hizkuntza bera ere ez bait daukagu edozein egoeratan erabiltzeko prest. Beste hizkuntza batzuek gizartearekin batera eman dituzte aurrerapausoak eta teknologia berria edo bizitza modernoko finantz mundu eta lege-makineria osoarekin batera garatu dituzte egoera horietan komunikatzeko behar den lexiko eta diskurtso osoa. Euskarak erabilera-eremu horiek eskuratzea nahi badugu, lan erraldoia izango dugu hizkuntza bera prestatzen, behar diren estiloak garatzen, lexikoa zorrozten eta baliabide gramatikalak lantzen.

Euskararen eskurapena lehen nahiz bigarren hizkuntz gisa dutenek apostu bera dute beraz, eta hauxe da: euskararen erabilera-esparruak zabaltzea eta, konkretuago nahi bada, bere lanbidean hizkuntzaren bidez burutu behar dituen eginkizunetan euskara erabiltzeko trebatzea.

LANEKO EUSKARA ETA EUSKALDUNTZE/ALFABETATZE-PROZESUAK

Beharrak ikusi ditugu. Baina nola erantzungo zaie behar horiei? Euskalduntze- eta alfabetatze-prozesuek ez al diote behar horri erantzuten? Euskalduntzeaz hitz egiten dugunean, hiztuna bere bizitzako atal eta une guztietan euskararen erabiltzaile efektiboa izateraino eramango lukeen prozesua dela diogu. Gaur egun euskalduntze- eta alfabetatze-prozesua antolatuta dauden moduan, hiztuna gaitasun-maila orokorretara ailegatzea nahi da; alegia, komunitatearen partaideek amankomunean edukiko luketen gaitasunera. Esan nahi baita, pertsona guztiok ez dugula hizkuntza egoera/inguru beretan erabiltzen, ez ditugu eginkizun berdinak burutzen, hau da, ez ditugu komunikazio-behar berdinak. Hiritar standardaren gaitasuna da, orduan, maila horretan erdietsi nahi dena. EGA tituluak ere honela definitzen du bere burua: «oinarrizko kultur mailako euskara, bai ahoz bai idatziz, zuzen eta egoki erabiltzeko gai izatea». Espreski dio EGA titulua lortzeak ez duela aitortzen «arlo bateko zein besteko euskara teknikoa erabiltzeko» trebetasunik.

Komunikazio-behar amankomun horietatik aparte gelditzen dira beraz arlo profesionaleko eskakizunak. Eta azpimarratzekoa da, batetik, alderdi horrek ekartzen duela dibertsifikaziorik handiena; baina, bestetik, bera dela aman-

komunak ez diren beharren arabera sailkapena egiteko erarik sistematikoena ere.

Txepetx-ek bere tesian dioen bezala, hiztunak, hiztun oso izateko hizkuntza egoera informaletan erabiltzeko gai izateaz gain, egoera formaletan erabiltzeko ere gai izan behar du. Mediku batek lagunartean eta gaixoekin edo laneko beste estamentuekin dituen erlazio informaletan euskara erabiltzeaz gain bere txosten eta lankideen arteko kontsulta profesionaletan euskara erabiltzeko gaitasuna lortzea izango luke helburu medikuentzat prestatutako «Xede Berezietarako Euskara» plangintza batek.

Euskararen irakaskuntzaren plangintzatik begiratuta, bi irtenbide ditu arlo profesionalerako trebakuntza honek:

1. Laneko euskara euskalduntze- eta alfabetatze-prozesuaren ondorengo urrats bezala definitzea. Hiztun alfabetatuaren maila lortu ondorengo urrats berria izango litzateke beraz.

2. Beste planteamendurik ere egin daiteke, ordea: hizkuntz irakaskuntza planteamendu komunikatibotik bideratuz, ikaselburuak definitzean, behar komunikatiboetan arlo profesionalekoak ere kontutan hartzea. Aurrekoan bigarren urrats bezala definitu duguna euskalduntze- eta alfabetatze-prozesuan integratzea ekarriko luke honek.

Elhuyar taldean planteatu eta landu ditugun ikastaroetan, laneko behar espezifikoak euskalduntze- eta alfabetatze-prozesuen ondorengo urrats batean hartu ditugu kontutan. Ikastaro horietan, maila orokorrena definitutako gaitasuna, arlo profesionaleko maila espezifikoagora eramatea izan da helburua. Ikastaro hauek «Euskara zientifikoa» izenarekin jaio ziren, baina urteen poderioz «Xede Berezietarako Euskara» arloaren barruko «Laneko Euskara» izendapena hartu dute.

Hala ere, ez dugu bigarren bidea itxita dagoenik uste eta euskalduntze- eta alfabetatze-lanetan diharduten talde eta erakundeek honelako saioak egingo balituzte, gure esperientziarekin alderatzea aberasgarri izango litzateke.

Bigarren bide honi buruzko ideia batzuk zirriborro gisa agertzeko aprobetxatu nahi genituzke lerro hauek, ideia hauek gauzatzeak hamaika oztopo eta buruhauste gainditu beharra suposatuko lukeela jakin arren.

1. Urratsez urratsezko syllabusak diseinatzerakoan era mailakatuan eta progresiboki arlo profesionalari dagozkion edukin eta nozio espezifikoak integratuko dituzten esperientziak martxan jartzea, hauetan lortzen diren emaitzak ebaluatuz.

2. Ikasleak lanbideka biltzea eskatzen du honelako saio batek. Ez dirudi gaur egun euskalduntze/alfabetatzeak duen antolamenduak horretarako aukera handirik eskaintzen duenik. Oraingoz, enpresa edo erakundeen barruan antolatu izan dira honelako saioak, baina ez euskaltegietan. Hala ere, enpresa batzuetan euskara ikasteko ematen diren erraztasunen ondorioz, badira zenbait euskaltegitan enpresa bereko talde osoak; eta, bestelako plangintzarik egiten ez den bitartean behintzat, talde horiek izan daitezke honelako saioak egiten hasteko abiapuntua.

Ezer gehitzeko ausardiarik ez dugu. Batetik, horretarako oinarri sendoagorik beharko litzatekeelako eta, bestetik, beste talde eta erakunde batzuk hone-

lako proiektu garesti eta neketsutan inplikatzea ez dagokigulako. Arlo honetan eskumena duten Instituzioek ere badute zer esanik eta inor engainatu gabe aplikazio masiborik ez duten ikastaroen diseinu eta inplementazioa ez da saio txiki eta ausartak izatetik pasatuko Erakunde Publikoen errekonozimendu eta laguntza lortu arte.

Arlo honetan aipatu beharreko lan bat bada. Euskal Herriko Elkarte Autonomoko Hizkuntz Politikarako Idazkaritzaren eskutik martxan dago Autonomi Elkarteko Administrazioetan Euskararen erabilera normaltzeko plangintza, eta plangintza honek euskara lan-hizkuntza bihurtzea du helburuetako bat. Baita, horretarako, langilegoak beharrezko euskarazko gaitasun-maila lortzea ere. Hau izango da, beraz, laneko euskararen arloan orain arte egin den plangintzarik zabalena. Proiektu horretan zorroztu beharko diren lanabesak eta trebatu beharko diren irakasleak beste sektore profesionaletako plangintzetara ere hedatzea eta hauek aberastea espero daitekeen zerbait da.

BEHARRAK ETA MOTIBAZIOA

Ikaslearengan ardaztutako ikaskuntz prozesuaren planteamenduaren inguruan sortutako kezkei «beharren» kontzeptuarekin erantzun zaio andragogia linguistikotik. Kontzeptu honek bigarren hizkuntzaren irakaskuntzan garrantzi handia hartu du eta xede berezietarako hizkuntzen irakaskuntzaren oinarrian dago. Arlo profesionaleko euskaran trebatzeko diseinaturiko ikastaro edo beste edozein eratako ekimenek beharren analisitik abiatu behar du, helburuetan huts egin nahi ez badugu. Behar horietatik ondorioztatuko dira ikastaroaren ikaselburuak.

Lehenengo arazoa «behar» kontzeptua argitzea litzateke. Richterich-en ustez, beharrak desoreka, hutsunea, lortu nahi dena adierazten du eta motibaziotik desberdindu beharko litzateke. Motibazioak bizitza sozialak pertsonengan eragiten dituenak dira eta beharrak hizkuntz egoerak inposatzen dituenak, bigarren hauek nagusiki lan-munduko inposizioekin lotzen dituelarik.

Beste autore batzuengan ere ikusi dugu beharrak/motibazioa bikotearen arteko marra hori argi uzteko nahia. Gure ustez, autore horiek hizkuntza normalizatuen kasua dute eskuartean, horrelako planteamenduak egiten dituztenean. Baina gure artean hizkuntza minorizatu (eta gune gehienetan baita minoritario ere) baten eskurapena helburu dugula, ez dugu desberdintasun hori era berean erabiltzeko arrazoirik ikusten.

Xede berezietarako hizkuntzen eskurapenaren arloko beharren analisiari buruzko literaturan maiz ikusten dugu motibazioaren alderdia baztertua: enpresa multinazional baten enplegatuen hizkuntz trebakuntza planteatzen denean, enplegu-emailearen ikuspegiari ematen zaio garrantzi handia; lanpostu horiek eleaniztun bihurtzeak ekarriko dituen onura eta kostu ekonomikoen arteko balantzearen balorazioa berak egingo bait du, lanpostuko enplegatuaren eritzia kontutan hartu gabe. Lanpostuen profilak enpresaren beharren arabera zehaztuko dira, eta horren ondorioz hizkuntz politikaren bat diseinatuko da, hizkuntz trebakuntza, lanpostuen berrantolaketa, kontratazio berria, itzulpen-zerbitzua edo bestelako baliabideren bat edo horien arteko konbinazioren baten aldeko aukera eginez.

Euskararen berreskurapena, gure ustez, beste koordenatu batzuetan kokatu beharra dago eta, euskararen hizkuntz plangintzan erizpide razionalak ere kontutan hartu gabe plangintza eraginkorrik burutzea ezinezkoa dela kontuan izanda noski, eskuartean du-

guna normalizazio-bidean dagoen hizkuntza nazionala dela alde batera utzi ezin den alderdia da. Alderdi honek hizkuntz borroka, hizkuntzarekiko atxekimendua, etab. ere plangintzan eragingo duten osagaiak direla kontutan hartzera behartzen gaitu.

Planteamendu honek «bidaiatzeko ingelesa» edo «kamareroentzako alemana» edo «injinero aeronautikoentzako ingelesa» bezalako metodoetako xede-taldearen beharrei buruzko ikuspegiaren eta «administraziorako euskara» edo «sanitate-arloko langileentzako euskararen» kasuetakoen arteko aldea arbuia ezinezkoa dela bistan uzten du: beharrak ez dira guztiz konparagarriak eta motibazioan osagai profesionalez apartekoek izango dute pisu nagusia gehienetan.

Atal honen hasieran aipatu dugun bezala, beharrak/motibazioa bikotearen inguruan zenbait egoeratan egin izan den gehiegizko banaketa dela eta, gure ustez, plantamendu osatzaileagoa egin beharko litzateke. Euskalduntze/alfabetatze-prozesuetan motibazioa bakarrik kontutan hartzeak eta laneko euskaran trebatzeko egoeratan, aldiz, behar profesionalak soilik kontutan hartzeak, ez diote gure Herriaren hizkuntz normalizazioa lortzeko helburuari biderik errazten. Hala ere, ez dugu ukatzen tokian tokiko balorazioak egin beharko direla eta trebakuntz egoera bakoitzean ikusi beharko dela, batari ala besteari, pisurik handiena zeini eman.

Elhuyar taldean azken urte hauetan eman ditugun ikastaroetako esperientziatik behintzat, hurrengo ondorio hauetara heldu gara:

1. Motibazio edo osagai ideologiko eta psikosozialek paper handia joka dezakete zenbait lantokitako esperientzietan. Finantz entitate batean laneko euskaran trebatzen den langileak ez du enplegu-emailearengandik presiorik izango euskara erabiltzeko; eta, beraz, motibazioak izan beharko du eskuratu duen gaitasuna erabiltzeko eragilea.

2. Termino operazionaletan definituko diren beharren ezagutza, motibazio pertsonalaren bultzagarri izan daiteke. Gure esperientzian oinarrituz, hauxe esan dezakegu: bizitza sozialeko beste arloak kontutan hartuz alfabetatzeko motibaziorik sentitu ez duen zenbait pertsonak, bere iharduera profesionalak beretzat duen garrantzia dela eta, askoz ere motibazio sendoagoa du bere lanaren inguruan alfabetatzeko. Pertsona horiek seguruen ez lukete bestelako alfabetatze-prozesuan beren burua murgilduko, ez bait dute horretarako motibaziorik.

3. Puntu honen inguruan beste zerbait ere esan nahi genuke: maiz ikusi dugu hizkuntzarekiko atxekimendua dutela dioten langileek, beren bizitza profesionalari ematen dioten garrantzi txikia dela eta, laneko euskaran trebatzeko duten motibazio eskasa. Alderdi hau erraz detektatzen da xede-taldea definitzeko egiten ditugun elkarrizketa pertsonaletan: langile hauek ez dute lanpostuaren deskribapena tajuz egiteko adorerik izaten eta elkarrizketatzaileak lanak izaten ditu bere laneko eginkizunak jasotzeko.

Guzti hau laburbilduz, beraz, zera esan dezakegu: beharren analisirik onenak ere ezin duela motibazioen alderdia alde batera utzi; honek, edozein irakaskuntz prozesutan bezala, paper garrantzitsua jokatzen bait du.

Beharren analisiaren gaiari gagozkiolarik, aurreko puntuetan aipatuta-

koa azpimarratuko dugu berriro: *beharrak* terminoaren bidez hizkuntza bidezko komunikazio-beharrak adierazi nahi ditugu eta, beraz, hizkuntza iharduerazko terminotan definitu behar dira, hizkuntz iharduera hauek egoera eta gai jakin baten inguruan gauzatuko direlarik.

LANEKO EUSKARA IKASTAROEN DISEINUA

Atal honetan ez dugu xede berezietarako hizkuntzako ikastaroen diseinuari buruzko gauza berririk esango; gure helburua ez bait da gai honen inguruko literaturan agertzen dena laburbiltzea edo eritzi kritikorik azaltzea, baizik eta orain arteko gure esperientzian jarraitu dugun prozedura agertzea.

1979an hasi ginen alor honetan lehen urratsak ematen. Saio haiei honako helburua ezartzen zitzaien: beren ikasgaiak euskaraz adierazi behar (edo beharko) zituzten zientzi eta teknika-gaietako irakasle euskaldunei laguntza eskaintzea, beren formazioa gaztelaniaz egina zutenez, euskararen aldetik aurki zitzaketen oztopo nagusiak nola gainditu erakusten ahaleginduz.

Gerora, irakaskuntzaz kanpoko beste arlo profesional batzuetara hedatzeko ahaleginak egin beharra ikusi zen eta Aurrezki-Kutxetako eta Administrazio Publikoko euskal langilegoaren trebakuntzara zuzendutako beste ikastaro berezitu batzuk antolatu ziren.

Esparru honetan eman genuen lehen urratsa Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalean izan zen, 1985. urtean. Ekintza hau, zer esanik ez, desafio handia izan zen gure taldearentzat. Izan ere, lehenbiziko aldiz ikastaro hauek irakaskuntza ez den beste eremu batera hedatzen zirelarik, ez zegoen ezer prestaturik, eta are gutxiago kontrastaturik, ikastaro hauek behar zuten eraginkortasuna ziurtatzeko.

Elhuyar taldeak buruturiko laneko euskara arloko ikastaroak

Erakundea	Ikastaro-kopurua	Ikastaroetan parte hartu duen langile-kopurua
Donostiako Aurrezki-Kutxa Munizipala	3	45
Gipuzkoako Kutxa	7	100
Lankide-Aurrezkia	1	16
Bizkaiko Aurrezki-Kutxa	1	12
Donostiako Udala	1	17
Tolosako Udala	1	18
Azpeitiko Udala	1	12
Lasarte-Orioko Udala	1	15
Arrasateko Udala	2	43
Bilboko Udala	1	14
Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza-saileko Donostiako Lurralde-Ordezkaritza	1	12
Donostiako Onkologikoa	2	33
Zenbait Udaletako langileak UEUn	4	75
GUZTIRA	**26**	**412**

Desafio horri heldu beharra zegoen, ordea; eta, ordu askotako lanaren poderioz, ikastaro hauetako diseinu eta material minimoa prestatzea lortu zen, gerora beste hainbat enpresatan esperimentatu eta hobetzen saiatu garelarik.


Bi arlo horietan ikastaro berriak ematen jarraitzen genuen bitartean, Sanitate-arloa jorratzen hasteko eskaera etorri zitzaigun Donostiako Institutu Onkologikotik. Argi dago, beraz, ikastaro-mota honek espektatibak sortzen dituela zenbait arlo profesionaletan, eta Elhuyar Taldeak egindako esperientziaz gain badira gaun egun beste saio batzuk ere.

Ikastaroen diseinua ikasleen premien analisitik abiatzen da, baina gero hizkuntz forma konkretu batzuen erabileran eta trebetasun batzuen lanketan gauzatzen da.

Trebetasunek, funtzioek, hizkuntz formek eta gaiari dagozkion edukinek elkarrekin osatzen dute ikastaroen langaia.

Gero langai hauek jorratzeko, iharduera batzuk, hau da, ariketa-multzo egituratu bat prestatzen da. Multzo honi materiala deitu diogu.

Ikastaro bakoitzaren inguruan burutu behar diren pausoak ikus ditzagun:



1. Xede-taldearen deskribapena

Ikastaro hauen hasieran beti dago ikasle izango direnei banan-banan egindako elkarrizketa. Elkarrizketa honek xede-taldearen deskribapenerako bidean bi helburu ditu:

a) Ikasleen sarrera-gaitasuna ezagutzea

Lehenago ere aipatu dugu mota honetako ikastaroetan sarrera-maila alfabetzea gainditua izatea dela. Elkarrizketaren bidez ikaslegaiak ahozko espresioa behintzat zein mailataraino menderatzen duen ebaluatu ahal izango da eta, ondoren eskatuko zaion lanpostuaren deskribapen idatziaren bidez, idatzizko espresioa ere bai.

b) Ikasleen beharrak detektatzea

Elkarrizketaren helbururik nagusiena, hala ere, ikaslearen premiei eta, neurri batean, asmoei edo ikastaroarekiko dituen espektatibei antzematea da. Ikastaro hauek, hein batean behintzat, neurrira egindako trajeak izan nahi bait dute, oinarrian beti dago ikasketarien beharren analisia.

Elkarrizketa honen hasieran ikaslegaiari ahalik eta argien azalduko zaio ikastaroaren helburua, bere lanpostua deskribatzean ahalik eta informaziorik baliagarrena eman diezagun.

Ikasketarien beharrei gagozkiolarik, hauek dira detektatzen saiatzen garen alderdiak:

— aktibitateak; adib.: telefonoa erabiltzea, idazketa eta honen barruan zein idazki-mota, propaganda, txostenak, inprimakiak, etab.
— funtzioak; adib.: informazioa jaso eta eman, azalpenak egin, etab.
— egoera edo situazioak; adib.: aurrez aurreko elkarrizketak, bilerak, etab.
— hizkuntz trebetasunak: aktiboak (mintzamena eta idazmena) nahiz pasiboak (irakurmena, ulermena).

Elkarrizketan, lanean erabiltzen duen material erreala biltzea eskatzen zaio ikaslegaiari eta, horrekin batera, bilketaren helburua azaldu ere bai, berak bildutako material hori ikastaroko ikaselburuak definitzeko baliagarri izan dadin. Horregatik eskatzen zaie, adibidez, inprimakiak bete gabe ez jasotzeko (berak erabiltzen duen testu edo datuz hornituta baizik) edo, idazkiren bat jasotzeko asmoa badu, idazki horretan bere partaidetza zein izan den azal dezake, hau da, ea berak erredaktatua den, besteren batek berak irakurtzeko igorria den, etab.

Elkarrizketatik eta ikasketari izango denak egindako material-bilketatik ez dugu beti behar dugun informazioa lortzen; zenbaitetan, langile horiek beren lanpostuaz duten balorazio eskasa dela eta, ez bait dute deskribapen horretan behar adinako interesik jartzen. Baina guretzat garrantzi handia du abiapuntu honek; kasurik txarrenean ere ikasketariak hasieratik bertatik ikusten bait du bere burua prozesu horretan inplikatua.

2. Ikaselburuen diseinua

Ikaslegaiengandik jasotako informazioa bildu ondoren, horren azterketa egitea izango da hurrengo pausoa. Ondorengo puntuak dira kontutan hartzekoak:

— Gaiak edo edukinak.
— Lexikoa eta esapide klitxetuak.
— Funtzio erretorikoak eta hauek inplikatzen dituzten hizkuntz baliabideak.
— Trebetasun aktibo eta pasiboak.

Puntu hauek kontuan izanik antolatzen dugu ikaselburuen zerrenda.

3. Materiala sortzea

Fase honetan, ikaslegaiek eskura jarri diguten materialaz gain bestelakoak ere gureganatu behar izaten ditugu. Adibidez, eskuartean dugun arloko hizkuntza teknikoa lantzen duten hiztegiak, edukin horien inguruko euskal produkzioa eta gaiaren inguruko informazio orokorra lortzeko kontsulta-liburuak.

Horrela, eta ikaselburuak kontutan hartuz, materiala sortzeari ekiten diogu. Klaseko materialak iturburu desberdinak izaten ditu; parte bat ikasleengandik eskuratutakoa izaten da. Beste parte bat guk eskuratzen ditugunek osatzen dute. Hauetako batzuk euskaraz sortuak eta guri honela heldu zaizkigunak dira, baina beste asko guk itzuli eta moldatu behar izaten ditugunak.

Esan bezala, aipatutako faktore guztiak konbinatzen ahaleginduz, ariketa-mota desberdinak prestatzen ditugu: irakurketa bideratuak, burutze-frogak, simulazioak, idazketa bideratuak, produkzio-libreak, ariketa analitikoak, jokoak, itzulpenak, etab.

4. Inplementazioa

Orain arteko gure esperientzia hauxe da: 15 bat laguneko taldeak osatu eta ordu t'erdiko saiotan banatutako 75 orduko ikastaroak ematea. Hasiera batean 100 orduko ikastaroak planteatu nahi izan genituen; baina, ikastaro hauen prestakuntza hain luzea izanik, kostuak ere asko igotzen zirela eta, 75 orduko ikastaroetan finkatu gara neurri handi batean, nahiz eta horretarako izan ditugun arrazoiak didaktika edo ebaluazioaren ondorio ez diren. Kontutan hartu honelako ikastaro baten prestaketak 1.000 ordutik gora eskatu izan digula; eta, beraz, zaila da horrek eskatzen dituen giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak aldi berean eskura izatea.

Gure ikastaroek bi parte izaten dituzte. Lehenengoan ikasketari guz-

tiek batera iharduten dute. Bigarrenean, aldiz, behar espezifikoagoen arabera taldekatzen ditugu, talde bakoitzarentzat material berezia prestatzen dugularik.

5. Ebaluazioa

Lehenengo eta behin, esan dezagun emaitzen deskribapena egiteko ez dugula ebaluazio-tresna sistematikorik martxan jarri. Ikastaroetara etorri diren langileak zenbateraino trebatu diren jakiteko izan dugun bidea, beraiekin izan dugun harreman pertsonala eta egin dituzten lan praktikoak izan dira.

Ikaselburuak diseinatzean, egoera jakin batean hizkuntza helburu komunikatiboetarako erabiltzen jakitea dela definitu badugu, gure ustez gaitasun hori nekez ebalua daiteke testen bidez. Honek berarekin simulazio-frogak erabili beharra ekarriko du seguruen, eta horrela ikaslearen produkzioa bertan ebaluatzea. Baina horretarako zailtasunak ez dira gutxi, eta zientzietako irakasleekin egindako zenbait ikastarotan bakarrik burutu ditugu honelako saioak, ikastaroan zehar edo bukaeran beren ikasgelako egoeraren bat edo simulatuz.

Garrantzi handia du noski ikastaro batean ibili direnak asko ala gutxi trebatu diren jakiteak, baina ikuspegi horretatik emaitzak munduko onenak izan arren, ez genuke ahaztu behar «tarteko helmuga» bat baizik ez genukeela lortua izango.

Ikastaro hauek Elhuyar Kultur Elkartearen aholkularitza eta ekarpen teknikoarekin antolatu dituzten erakundeek beren funtzionamendua euskalduntzea izan dute helburutzat, ekintza hau aurrera eramatea erabaki dutenean. Benetako ebaluazioak azken helburu hori lortzeko bidean egindako aurrerapena neurtu beharko luke.

Ebaluazioaren aldetik tresna sistematikorik ez dugula oraindainokoan martxan jarri esan bagenuen lehentxoago eta ikastaroetan parte hartu dutenen trebetasun-irabazpenak ezin ditugula deskribatu inpresioen bidez baizik, gutxienez inpresio hori on samarra dela esan dezakegu.

Erakundeen funtzionamendua euskalduntzearen aldetik dugun inpresioa askoz ere eskasagoa da, zalantzarik gabe.

Nahiz eta ikasle izandakoek ikastaroan ikasitakoa, lanpostuan erabili beharrezko hizkuntzaren aldetik, aberasgarri gertatu zaiela esaten diguten, gehienek oztopo handiegiak aurkitzen omen dituzte komunikazioa benetan euskaraz burutzeko. Erakunde eta enpresetako buruen euskararekiko jarrera eta honen erabilera, tamalez, ez da eredugarri izaten. Ikastaroetan parte hartzen duten askoren sentimentua hauxe izaten da: behe-maila eta ertaineko lanpostuetako enplegatuei trebakuntza hori eskatzen zaien bitartean, goragokoei ez eskatzeaz aparte, buru hauek ez dietela lanean euskara erabiltzeko erraztasunik ematen.

BUKAERA GISA

Artikulu honen bidez, laneko euskararen arloan orain arte egin duguna azaldu eta gerora egin daitekeenari buruz zenbait norabide plazaratu nahi izan dugu.

Lerro hauetan zehar, euskalduntzeeta alfabetatze-plangintzan arlo profesionala ere kontutan hartzeak euskara berreskuratzeko, gure ustez, duen paper erabakiorra justifikatzen saiatu gara. Horrek erakunde eta gizarte osoari dakarzkion erantzukizunak ere aipatu ditugu; baina guk orain aldizkari honen irakurlegoari, hau da, euskararen irakaskuntzako profesionalei, dagokion alderdia bakarrik azpimarratu

nahi genuke: euskal gizarteak behar dituen hiztunak trebatzea dagokigun neurrian, arlo profesionaleko beharrei buruz gogoeta sakona egin beharko genuke eta ondorioen arabera saio desberdinak (egoera desberdinen araberakoak) martxan jarri. Ondoren, saio horien balorazio kritikoak egin ta plazaratu, eztabaida kolektibo osoari hedatuz eta besteen esperientziekin bakoitzaren lana aberastuz. Elhuyar taldetik, ildo horretan besterekin elkarlanean saiatzeko prest gaudela aditzera eman nahi genuke.

ENSEÑANZA DE LA LENGUA PARA FINES ESPECIFICOS: EUSKARA PARA FINES OCUPACIONALES

El artículo pretende, en primer lugar, analizar las necesidades de comunicación en el ámbito laboral y, en segundo lugar, presentar los cursos que en este campo ha desarrollado el grupo Elhuyar.

Los procesos actuales de euskaldunización y alfabetización no garantizan la adquisición de la lengua para fines ocupacionales. Por tanto, se plantea el problema de establecer un cilo posterior a dicho proceso o de integrar las necesidades del campo profesional en los procesos de euskaldunización y alfabetización. Se reflexiona también sobre la necesidad de contemplar conjuntamente los conceptos de «necesidad» y «motivación». Minusvalorar la motivación puede llevarnos a planteamientos erróneos que menoscaben la eficacia del curso.

Por último, se hace una descripción del procedimiento utilizado por el grupo Elhuyar en los cursos que ha impartido en el área de euskara vocacional. Las etapas que se describen son:

1. Descripción del grupo objeto.
2. Determinación de los objetivos de aprendizaje.
3. Creación del material.
4. Implementación.
5. Evaluación.

TEACHING LANGUAGE FOR SPECIFIC PURPOSES: BASQUE FOR OCCUPATIONAL PURPOSES

The aims of the article are, first of all, to analyse communication needs in the work environment and, secondly, to introduce the courses which the Elhuyar group have developed in this field.

The current processes to foster the Basque language and literacy in Basque do not guarantee acquisition of the language needed for occupational purposes. Therefore, the problem is posed of establishing either a series of courses following on from the above mentioned processes or of integrating the needs of the professional world into current processes. At the same time the need to consider simultaneously both the concept of «need» and that of «motivation» is discussed. Underestimating motivation can lead to erroneous approaches which would reduce the effectiveness of a course.

Finally, a description is given of the procedure used by the Elhuyar group in the courses which they have given in the area of vocational Basque. The stages described are:

1. Description of the object group.
2. How learning aims are determined.
3. Creation of materials.
4. Implementation.
5. Evaluation.

ENSEIGNEMENT DE LA LANGUE À DES FINS SPÉCIFIQUES: LANGUE BASQUE (EUSKARA) POUR DES OCCUPATIONS PROFESSIONNELLES

Les objectifs de l'article sont, premièrement, d'analyser les besoins de communication dans le monde du travail; et, deuxièmement, de présenter les cours développés dans ce domaine par le groupe Elhuyar.

Les processus actuels de basquisation et alphabétisation ne garantissent pas la maîtrise de la langue à des fins en rapport avec les occupations professionnelles. Il se pose, donc, le problème d'établir un cycle après le processus en question ou d'intégrer les besoins du domaine professionnel dans les processus de basquisation et alphabétisation. On y réfléchit, aussi, sur le besoin de considérer conjointement les concepts de "nécessité" et de "motivation". Attacher moins de valeur à la motivation pourrait nous amener à des formulations erronées qui entameraient l'efficacité du cours.

On y fait, finalement, une description du procédé employé par le groupe Elhuyar dans les cours qu'il a donnés dans le domaine du basque (euskara) par vocation.

Les étapes décrites sont:

1. Description du groupe objet.
2. Détermination des objectifs d'apprentissage.
3. Création du matériel.
4. Équippement.
5. Évaluation.